


[Euskara](#)

1. [Hasiera](#)
2. [Ekitaldiak \(Jaiak\)](#)
3. Sagardo Berriaren Eguna

Sagardo Berriaren Eguna



Sagardoetxeak urtarrilaren 12an azalduko ditu 2010ko uztaren ezaugarriak txotx denboraldiaren hasiera izango den ekitaldian eta jendea sagardo berria dastatzen hasteko desiratzen dagoen momentuan. 2010ko uza aromatikoa eta orekatua dator.

Herria: Astigarraga

Lekua: Sagardoetxea

Hora: 12:00

Organizadork: Astigarragako Udala

FechaInicio : 2011/01/12

FechaFin : 2011/01/12

Astigarragako Alkateak aurkeztuko du uza berria Sagardoetxean eta sagarraren eta sagardo berriaren ezaugarrien berri emango du, elaborazio prozesuaren inguruko informazioarekin batera. Sagardoetxean izango da ekitaldia, Kultur Etxean, eguerdiko 12:00etan.

Baina urteroko moduan, hemezortzigarren aldi honetan ere, ekitaldiko unerik garrantzitsuen txotx irekierakoa izango da. Astigarragako Petrtegi sagardotegian "Gure Sagardo Berria" oihu egingo du **Karlos Arguiñano sukaldariak**, lehen kupela irekiko du eta honekin batera sagardo denboraldi berria irekiko da.

Aldez aurretik, museoko sagastian sagarrondo berri bat landatuko da. Ekitaldi sinboliko honekin, naturaren dinamiktasuna eta berritzeko ahalmena azaldu nahi dira, urtetik urtera mahai batean sagardoaren bueltan esertzeko aukera eskaintzen baitigu.

KARLOS ARGUIÑANO

2011ko Sagardo Berriaren Eguneko protagonista

Zalantzarik gabe, telebistako sukaldaririk ospetsuena da. 80. hamarkadako egoera gastronomikoa goitik bera aldatu zuen Euskal Sukaldaritzza Berria deituriko taldeko kidea da. Zarautzen duen Karlos Arguiñano jatetxea sukaldaritzza tradizionalen nabarmenduetariko bat da.

Nazioarteko mailako ospari dagokionez, Eurococinero kalifikazioa dauka eta Eurotoc-eko (Europako Ekonomia Batasunak Bruselas-en sorturiko kontsultar-erakundea eta bertako produktua eta Europako sukaldeetako kalitatea zaintzeko helburua duena) lehendabiziko lau ordezkari espainiarretako bat da.

Komunikatzaile gisa burutu duen lana hainbat alditan saritua izan da. Besteak beste, TP Saria, telebistako saio onenaren 1993ko Ondas Saria, turismoaren defentsan eta espainiar gastronomiaren difusioaren merezimenduan Zilarrezko domina eta telebista Argentinareko komunikatzaile onena gisa Martin Fierro saria eskuratu ditu.

Gastronomiarekin lotutako 50 liburu baino gehiago argitaratu ditu, besteak beste: 1069 recetas (2010), cocina vasca (2009), comer sano y con fundamento: 200 recetas para cuidarse disfrutando (2009), cocina expres (2008), atrevete a cocinar (2008), gran recetario (2006), Karlos Arguiñano en tu cocina: las recetas de la tele (2005), pintxos y tapas (2005), mis recetas favoritas (2004), cocinando con Karlos Arguiñano (2003), la cocina de Karlos Arguiñano (2002), etb...

Gaur egunean Antena3-ko Hogarutil atalean "Karlos Arguiñano en tu cocina" saioa aurkeztzen du eta egunero errezeta errazak, merkeak eta osasungarriak aurkeztzen dizkigu.

Egunero erabiltzen ditugun produktuekin plater ezberdinak prestatzen ikasteko aukera paregabea.

Egitaraua:

- **12:00etan** - Pentsaurrekoa Sagardoetxean (Kultur Etxean). Bertan azalduko ditugu 2010ko uztaren ezaugarri nagusiak, sagarra eta sagardo berriaren nortasuna.
- **13:00etan** - Sagarrondo bat landatuko dugu ekitaldi sinboliko gisa, 2011ko Sagardo Berriaren Eguneko protagonistaren eskutik.
- **13:45etan** - Petritegi sagardotegian irekiko da lehenengo kupela “Gure Sagardo Berria” oihu eginda. 2011ko txotx denboraldiaren hasiera ofiziala egingo da.
- **Ondoren:** denboraldiko sagardotegiko lehenengo menua izango da aukeran.
- **Egun guztian:** Astigarragako tabernekek barrikoteak jarriko dituzte, bezero guztiei uzta berriko sagardoa emateko.

“Gure Sagardo Berria” aurkeztu duten pertsonalitateak:

- **1994:** Andoni Egaña, bertsolaria.
- **1995:** Jose Mari Bakero, futbolaria.
- **1996:** Javier Clemente, entrenatzailea.
- **1997:** Julián Retegi, pilotaria.
- **1998:** Miguel Indurain, txirrindularia.
- **1999:** Juan Mari Arzak, sukaldaria.
- **2000:** Pedro Miguel Etxenike, fisikaria.
- **2001:** Joane Somarriba, txirrindularia.
- **2002:** Martín Fiz, korrikalaria.
- **2003:** Abraham Olano, txirrindularia.
- **2004:** Periko, Mikel eta Xabi Alonso, futbolariak.
- **2005:** Ainoa Arteta, sopranoa.
- **2006:** José Luis Korta, arraunlaria.
- **2007:** Juan Martínez de Irujo, pilotaria.
- **2008:** Andoni Luis Aduriz, sukaldaria.
- **2009:** Aimar Olaizola, pilotaria.
- **2010:** Real Sociedad de Fútbol taldea.
- **2011:** Karlos Arguiñano sukaldaria.

Lotura interesgarriak:

[Sagardoetxearen weba](#)

[Kredituak](#)